

Atzeraldi ekonomikoa, demokrasiaren krisia eta klase arteko borrokaren gogortzea



JUAN IGNACIO RAMOS
Ezker Iraultzaileko Idazkari Orokorra

Erabat nahaspilatuta dago sistema kapitalista. XX. mendeko sasoi asaldatuertaraino atzera egin behar da, zehazkiago hogeita hamarreko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetara, klase dominatzailearengan nahasmen eta pesimismoz beteriko giroa eragiten duten gertakari politiko eta ekonomikoak nola korapilatzen diren ulertu ahal izateko.

Finantza espekulazioa eta zorra. Iraganeko lezioak ez dira ikasi

Duela hamar urteko atzeraldi ekonomiko handiari aurre egiteko agenda kapitalistak are larriago bihurtu ditu garai hartan azaleratu ziren kontraesanak.

2008ko ezteandaren ondoren, G-8 eta G-20ko goi-bilerek deklarazio harro asko egin zituzten inbertsio bankuak zorrotz erregulatzearen eta kontrol publikoen alde. Halere, propaganda horren guztiaren atzean, mundu osoko gobernuak justu aurkakoa egin zuten: aurrekontuen zati handiak banku, korporazio handi eta porrot egindako enpresak salbatzeko erabili ziren, diru kopuru erraldoiak sartuz eta, horretarako, murrizketa sozialen aldeko plan izugarriak zein pribatizazio masiboak eginez.

Historiako mozkin finantzario handienek agerian uzten dute egungo ekonomia-

ren jite parasitarioa, egunetik egunera fikziozkoago eta errealtatetik aldentuago. Mozkinak ez ditu irabazten inbertsio produktibo eta merkantzien salmentatik, baloreen merkaturatu produktu finantzario espekulatioak erreproduzitzen baizik. Egun, banku estatubatuarrek 157 bilioi dolar dituzte deribatuetan, hau da, munduko BPGaren bikoitza eta 2008an pilatutakoa baino %12 gehiago.

Burbuila espekulatioaren aurrerakadarekin batera, munduko zor publiko eta pribatuak marka guztiak gaintu ditu, erorketa are dramatikoago bat prestatuz. Finantza Internazionalen Institutuaren arabera, 2018an, mundu osoko etxebizitza, enpresa, banku eta gobernuen zorra 243,2 milioi dolarretara iristen zen. Hori BPG globalaren %317aren parekoa da

Hegemonia eskuratzeko borroka

Munduko hegemoniaren lehia zabalean, AEBren eta Txinaren arteko borroka komertziala eraldaketa kualitatibo bat ari da izaten nazioarteko harremanetan. AEBk aspektu askotan zuzendari postua mantentzen jarraitzen badu ere, ezin ezkuta dezake inperialismo txinatarraren gorakadari aurre egiteko pairatzen dituen arazo larriak.

Hona adibide gisa balio dezaketen datu zenbait: 2000 eta 2015 artean Txina munduko altzairuaren %3 ekoiztetik %50era igaro da, eta soilik 2011 eta 2013

artean zementu gehiago kontsumitu du AEBek XX. mende osoan baino. 1980an esportazio txinatarrak munduko %1 ziren, 2018an, berriz, munduko esportazioen lehen postuan kokatu zen, guztiaren %12,8arekin. Azken hamar urteotako munduko hazkunderaren heren bat baino gehiagoren erantzulea izan da.

Hala ere, Estatu Txinatarraren kapitalismoak ere gain-ekoizpenaren ondorioak pairatzen ditu, eta estimulaziorako estatu plan mordoek ezin dute arazo hori saihestu. 2018an BPGa %6,6 baino ez zen handitu, 1990tik hona izandako mailarik baxuena. Azken mugan, arrazoiz objektibo horregatik ezin du atzera egin Beijinggo erregimenak. “Zetazko bidearen” megaproiektuaren bitartez nazioarteko akordio politikoa oldarkorra ari da aurrera eramaten, azpiegiturretan dirutza inbertitzean oinarrituz, etorkizuneko mundu mailako merkataritzaren kontrol eta zuzendaritza borrokatuz.

Burgesia iparamerikarra bidegurutze historiko batean dago. Prentsa ekonomikoak azaleratutako datu ederrek (121 hilabeteko hazkundera eta indize ofizialen arabera 3,6ko langabezia) ezin dute munduko potentziaren gainbehera ezkutatu. BPGaren batz besteko hazkundera Trump aroan, %2,3koa da, azken hirurogeita hamar urtetako txikiena.

Trumpen neurri ekonomikoek Obamaren administrazioetik zetorren desberdintasuna eta pobrezia soziala areagotu baino ez dute egin. Murrizketa fiskalek aberats handiak gehiago aberastu dituzte. 2008an 267 bilioi duna zeuden eta 2018an berriz 607. Bien bitartean, 39 milioi herritarrek jateko laguntza federalak jasotzen dituzte.

Klase ertain iparamerikarra desegiten ari da. Erreserba Federalaren azken kontsumo inkestean arabera, irabazi ertainak dituzten helduen heren batek 400 €-ko ezusteko faktura baten aurrean diru maila eskatuko lukete, zerbait salduko beharko lukete edo fakturari aurre egiteko

gai ez lirakeela izango adierazi zuten. Zerbitzuen kostu altua dela eta, laurden batek 2018an inolako mediku-arretarik jaso ez zuela erantzun zuten, eta hamarretik hiruk saldo negatiboak dituzte haien kreditu txartelekin gehienetan.

Nazionalismo ekonomikoa eta gerra komertziala

Abuztu amaieran, Trump Biarritzeko G-7aren gailurrera iritsi zenean, amorrutako adierazpenak egin zituen sare sozialetan “Ez dugu Txina behar, eta, egia esan, haiek gabe hobeto geundeko”... Halako mezuek inperialismo iparramerikaren inpotentzia baino ez dute erakusten.

Irailaren 1ean indarrean jarri ziren %15eko arantzel gehigarriak 300.000 milioi dolarretako zerga neurri osoaren barnean oraindik ere zigortuak izan ez ziren inportazio txinatarraren zati baten gainean. Horri Txinak erantzun zion produktu iparramerikarrei 75.000 €-tan baloratutako %5 eta %10 arteko zergak ezarri. Horri yuanaren eta dolarearen arteko debaluazio lehiakorrak gehitu behar zaizkio.

Erabaki horiek ekoizpen kostuak handituko dituzte AEBetan, Txinan eta Europan. AEBetan modu gogorrean eragingo dute automobilen, petrolioaren eta sojaren sektoreetan, besteak beste. AEBk Asiako herrialdeetatik jasotzen dituen inportazioen %77tik hurbil industria amerikarrek merkantziak ekoizteko produktu erdi-fakturatuak dagokie.

Baina Txinak ere galduko du gerra komertzialaren ondorioz. 2011 eta 2016 artean, munduko merkaturatu eginiko erosketa handienak hiru lehiakide zuzenen artean zeuden partekatuta: %27 AEBetatik, %17 Japoniatik eta %11 Alemaniatik.

Eurogunea ere ez da libre egonen gerra horren ondorioetatik. Blokearen kontu korronteko superabitak %21 behera egin du, eragin larriekin ekonomia alemaniarrean (zeinaren esportazio sektoreak BPGaren %50 hartzen duen), frantziarrean eta italiarrean.

Sozialismoa ala basakeria

Autarkia eta nazionalismo ekonomikoa amets atzerakoiak dira, pasa den mendeko hogeita hamarreko hamarkadan agerian geratu zen bezala, eta gortina horren atzean ez da inperialismorik oldarkorra baino ezkututzen.

Atzeraldi ekonomikoak berehalakoa dirudi. Botere kapitalista handiak inoiz baina bananduago daude, eta ez dute kalkulatu krisi ekonomiko berri batek masengan izan dezakeen eragina. Urte-tako pobretzeak amorrutako kolektibo handia eragin dute, hazteari uzten ez diona.

Klase arteko talka garrantzitsu batera ari gara hurreratzen. Errealtateak bete-betean aldarrikatzen du programa marxista, baina, langile klasea ez da ondorio horietara soilik irakurketen bidez iritsiko, esperientziaren bitartez baizik.

Sozialismoa ez da zerutik eroriko, langile klasearen eta gazteriaren ekintza kontzientearen bitartez baizik. Ekoizpen baliabideen sozializazioak baino ezin dezake gure begien artean marrazten ari den hondoratze ekonomikoa eta basakeria konpondu. Munduko ekoizpen indarrek sistema sozial berri baten premia dute, horiek antolatu eta modu armoniatu eta demokratikoan planifikatuko dituzte. Oker eta porrotaren bitartez, munduko zapalduen buruan langileek ondorio politiko eta praktikoa aterako dituzte, eta egin beharra beteko duen alderdi iraultzailea sortuko dute.

**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Laguniez eguztu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!**

euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 708 281

Twitter: @EHSozialista • Facebook: Euskal Herria Sozialista

LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!

Laguniez eguztu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen zure harpidetzarekin!

Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.

Kataluniako errepublika sozialistaren alde, preso politikoak askatu!

ESQUERRA REVOLUCIONÀRIA
Catalunya

Urriaren 1eko epaiketa fartsaren sententzia mugarri izango da Kataluniako eta Estatu espainiarreko egoera politikoan. Espainiar burgesiak helburu bikoitza du: Kataluniako herritarren borondatea zapaltzea autodeterminazio eskubidea ukatuz eta errepublikaren aldeko borroka Kataluniatik kanpora ez zabaltzea.

Herritarren mugimenduaren aurkako errepresioa

Espainiar burgesiak ondo asko daki Epaitegi Gorenaren sententziak dituen inplikazioak onartezinak direla Kataluniako herriarentzat; hori dela eta, kaleko erantzunari aurre egiteko prestatzen ari da. Horrexegatik atxilotu zituzten eta terrorismoaz akusaturik CDRko 7 ekintzaile, era guztietako irregulartasunak, eskubide urraketak eta proba faltsuak erabili. Kataluniako errepublikaren aldeko mugimenduaren izaera baketsu eta masiboa estali nahi dute, mugimendua kriminalizatuz eta Kataluniako herriaren aurkako errepresioa prestatuz.

Ofentsiba horretan, Pedro Sánchezek eta PSOEek paper protagonista hartu dute. Berriro 155a aplikatzeko mehatxuak mezu argia du: nazionalismo espainiarra hauspotzen dute geruza atzerakoien botoak eskuratzeko, botere faktikoekiko subordinazio erabatekoa argi erakusteko, aliantza berriak eskuinean bilatzeko eta langile klasearen aurkako erasorako eta errepresioarako prestatzeko. Egoera honetan, Kataluniako mobilizazioak arrisku handia izan daitezke ezegonkortasuna zabaltzeko eta beren planei aurre egiteko orduan.

Catalunyako herriaren borroka langile klasearen eta zapaldu guztion borroka da

U1ean, masak ekintza zuzenaren bidez bozkatzeko eskubidea ezarri eta errepublikaren aldeko bi milioi boto lortu zituztenean, krisi iraultzailea piztu zen Katalunian. Bi egun geroago, U3ko greba orokorrak Katalunia osorik geldiarazi zuen eta milioika manifestari mobilizatu ziren. Erresistentzia eredu argi eta baketsu haren irudiek mundua zeharkatu zuten.

Krisi iraultzailea deuseztatu eta milioika pertsonak amore eman eta errepublikaren ideia baztertzeko asmotan, klase agintari espainiarrek (Kataluniako kapital handiaren babesarekin) diktaduraz geroztik aurrekaririk ez duen errepresioa erabili zuen. Ez dute lortu. Kataluniako eta estatu espainiarreko burgesiaren arazoa da 78ko erregimenari zuzenean eragiten dion krisi politikoak bere horretan jarraitu ezezik, areagotzen ari dela.

78ko erregimenak egun independentismoaren aurka erabiltzen dituen neurri errepresiboak, bihar gobernu kapitalisten politikari aurka egiten dien edozein gizarte mugimenduren, sindikaturen edo erakunderen aurka erabiliko dituzte. Horregatik da hain larria komun en agintariak eta Unidas Podemosko (UP) zuzendaritzak duten jarrera.

U1ko krisi iraultzailea lehertu zenetik, bai haiek eta bai CCOO eta UGTko agintariak uko egin zieten Kataluniako he-

rriarren aldeko elkartasuna adierazteari eta errepublikaren aldeko mobilizazioa Estatu espainiar osora hedatzeari. Beste aldeira begiratzea erabaki zuten, eta gainera gezurrak asmatu zituzten, adibidez, “kataluniar eliteak zuzendutako mugimendu atzerakoia” zela esanez; jakin da, halere, Kataluniako burgesiak ez duela independentzia eta errepublika bultzatu eta, areago, aurka egin diela. Ehunka enpresaburuk iragarri zuten U1aren ondoren Kataluniatik alde egingo zutela.

Auzi nazionalen klaseko ikuspuntu internazionalista alde batera uzteak eskubide demokratikoen aldeko defentsa baztertzeko dakar. PSOE-UPren artean koalizio gobernu osatzeko negoziatzen, Pablo Iglesiasen onartu zuen, Sánchezek eskatu bezala, autodeterminazio eskubidearen aldeko aldarria eta 78 erregimenari egindako kritikak alde batera utziko zituela. Gainera, onartu zuen gobernuan parte hartuz gero, PSOEek 155a aplikatzeko balu, muturru gabe onartuko lukeela.

Kataluniaren aurkako gezur kanpaina gorabehera, estatu mailako galdekete erakusten dute gehienak errepresioaren aurka daudela, 155a defendatzen dutenen aurka. Horrek erakusten du errepublika sozialistaren aldeko borroka langile klaseko sektore asko irabaz daitezkeela.

Ezker iraultzaile bat eraiki

Apirilaren 28 eta maiatzaren 26ko hauteskundeek Katalunian berretsi zuten milioika pertsonen 78ko erregimenarekin hausteko duten gogo sakona. Bloke atzerakoia (Vox, PP, Cs) ez zen %15era iritsi guztira. 1977az geroztik lehen aldiz, bere burua independentista eta ezkertiar gisa kokatzen duen alderdi batek —ERC— udal herrietako eta estatu mailako hauteskundeak irabazi zituen.

Babes hori ez zen izan errepublikaren aldeko borroka izozkailuan sartzeko. Esquerrak jaso zituen JxCati kendutako milaka bozka, hain zuzen ere, ezkerreko politikan oinarritutako den Catalunyako errepublika nahi dutenen aldetik. Komunekin eta Podemosekin samindurik dauden gazte eta langile askoren babes ere jaso zuen, aldateten udalek eta buruzagiek errepublika katalana ukatzeak eragindako dezepzioetik.

Hala ere, ERCko buruzagiak gobernuan egiten ari direna bozka eman zieten espero zutenaren aurkakoa da. U1eko agindua eta errepublikaren aldeko mobi-

lizazioa bertan behera uzten ari dira, murrizketa berriak eta pribatizazio politikak aplikatzeko. Pere Aragonés Vicepresidentak bultzaturiko legea eta Francesc Bargalló Hezkuntza Consellerrak harturiko neurriak (biak ERCkoak) ezinegon zabala eragin dute oinarri sozialean.

ERCko buruzagiek diote ez dagoela nahikoa indar korrelazio errepublika aurrera eramateko, eta horrek irtenbide “negoziatu” bat behartzen duela Estatuarekin; hau da, amore ematea U1eko mandatuaren aurrean. Hori faltsua izateaz gain, oso arriskutsua ere bada. Azken batean, eskuin katalanistari bakarrik egiten dio mesede, bere asmoen artean baitago, hain justu, jendea etxera bidaltzea, autonomismora itzultzea eta burgesia espainiarrekin negoziatzea.

Kataluniako askapen nazionalen mugimenduan geroz eta talka handiagoa ematen ari da: alde batetik milaka eta milaka gazte, langile eta geruza ertainetako sektore zabalek amaierara arte eman nahi dugu errepublikaren aldeko borroka, Estatu zentralistaren zapalkuntzarekin amaitu eta Catalunyaren eraldaketa soziala errealitate egingo duena. Bestetik eskuin katalanistaren taktikak prozesua atzeratzean oinarritzen dira, eta mugimenduaren oinarrian gutxiengoaren diren arren, pisu erabakigarria dute Gobernean.

Kontraesan hori azken urte honetan ikusi izan da Torraren aurka txistu egin denean edo Buch Barne-consellerraren dimisioa eskatu denean, hainbat manifestazio antifaxista eta independentisten aurka buruturiko errepresioetatik. Esaterako, orain dela gutxi erabaki du Barne sailak mossoei manifestariaren aurka piper gasa erabiltzen utziko diela. Azken hilabeteetan haserreak gora egin du. ANCKo tokiko asanbladetan kritika sakonak egin dira, CDRen ekintzak agertu dute eta Diadako manifestazioaren burutik Goberneko alderdietako buruak kentzeko erabakia hartu zen.

Greba orokorrari jarraipena emango dion borroka plan baten alde, langileen eta herriaren Catalunyako errepublika gauzatzeko duena!

Ikasgaiak atera behar ditugu Urriaren 1 eta 3ko gertaeretatik eta bi urte hauetako esperientzietatik. Gorenaren epaiaren aurkako erantzunak ezin du mugatu greba orokor isolatu batera. Beharrezkoa da ezker borrokalari guztia, CDRk, errepublika babes-

ten duten klaseko sindikatuak, eta mugimendu sozial guztiak denboran luzatuko den ekintza plana aurrera eramatea, greba orokorraren egutegi argi batekin, lantoki eta ikastetxeak okupatuz eta herritarren babes masiboa sortuko duen manifestazioak eginez.

Neurri honetako erresistentzia mugimendu bat eskuratzeko errepublika sozialista planteatzea eskatzen du, ekonomia-aren funtsezko palankak, bankuak eta monopolio handiak, nazionalizatuko dituen eta guztiz ezabatuko dituen murrizketa sozialak, etxebizitza publiko eta eskuragarriaren gabezia, prekarietatea eta miseria-aren soldadak, indarkeria patriarkala eta ingurumenaren suntsiketa. Horrek ahalbidetuko luke errepublikaren aldeko borroka batzeta orain arte parte hartu ez duten langile eta gazte asko, ez baitira fidatu eskuin katalanistak Procèsan hartu duen pape- rarekin Gubernetik murrizketak egin dituenean. Gure borroka beste lurraldeetako langile eta gazteenarekin elkartzeko zubia ere ezarriko luke, errepresioari aurre egin eta garaipena eskuratzeko baldintza hobere- renak sortuz.

Catalunyan milaka pertsona nazkatu- rik daude inoiz konkretatzen ez diren hitz eta promesekin, giroa epeltzeko egiten diren ekintzekin. Testuinguru honetan, CUPEk azaroaren 10ean hauteskundeetara aurkez- teko hartu duen erabakia aukera handia da burgesia katalanistaren hertsadurekin eta Gubernaren murrizketa eta desmobilizazio politiken kolaborazioarekin edo jarraipe- narekin amaitzeko. CUPEk aukera berria du ezkerrean geroz eta handiagoa den tokia hartzeko eta langileen eta herriaren erre- publika katalanaren aldeko borrokan pa- per bat jokatzeko. Baina ezinbestekoa da azken aldiaren babes eta eragina galtzera eramane dituen akatsetatik ondorioak ater- ratzea, nahiz eta militanteek borrokarako asmo sendoa agertu duten.

Oinarriek estrategia argia eskatzen dute Estatuaren errepresioari aurre egiteko eta errepublika errealitate bihurtzeko. Hori era- gozten duen funtsezko faktorea mugimen- duaren buruzagitzan kapitalismoa sistema posible bakartzat dutenen pisua da; nazio askapena gizartearen eraldaketa sozialis- tarekin elkartzearen aurka egiten dute. Oz- topo hori gainditzeko ez da nahikoa borro- katzeko borondatea. Kontzienteki ekin be- har da langileen eta gazteen alderdi bat eraikitzen, programa iraultzaile eta inter- nazionalista altxatuko duena.





Kaleko mobilizazioan oinarrituko den ezker borrokalaria behar dugu

78ko erregimenaren, murrizketen eta errepresioaren aurka

EDITORIALA

Azaroaren 10eko hauteskunde deialdiak agerian utzi du 78ko erregimenak bizi duen krisi sakona: lau urtetan lau hauteskunde orokor. Burgesia espainiarra egonkortasun politikoa ezarri ezinik dabil, eta horrek izugarri zailtzen dio langile mugimenduaren eta eskubide demokratikoen aurka aurrera eraman nahi duen agenda gauzatzea.

Joan den apirilaren 28ko hauteskunde ondoan, eskuineko blokea gobernua osatzeko aukerarik gabe geratu zen. Ezkerreko oinarri sozial eta elektoral eskuinteko gobernua eragozteko helburuarekin joan zen bozkatzera. Lan erreformekin, prekaritatearekin eta miseriazko soldatekin amaitu beharra zegoen, baita Catalunya 155a aplikatzearekin, Mozal Legearekin eta frankistez leporaino dagoen Estatuaren errepresioarekin ere. Catalunya eta Euskal Herrian ezker independentistek jaso zuten bozka masiboak PP, Cs eta Vox zuzenean kolpatu zuten, eta erakutsi zuten gazte eta langile askorentzat duen garrantzia autodeterminazio eskubidearen aldeko borroka, murrizketen aurkako borrokaekin elkartzeak.

PSOE 155aren buruan

PSOEko buruzagiek argi utzi dute ez dardela prest Rajoyren gobernuaren murrizketa sozialei eta kontraerreformei atzera buelta emateko. Unidas Podemosekin koalizio gobernua eratzeko negoziazioen porrotak azalpen argia du: nahiz eta Pablo Iglesias asko saiatu den argi uzten erantzukizunez jokatzeko dakien alderdia direla, eta gobernuan postu bat lortzearen prest dardela beren programako puntu asko alde batera uzteko —autodeterminazio eskubidea barne—, burgesiak ez du nahi kaleko presioa jaso dezakeen elementurik gobernuan. Egoera erabat kontrolatu nahi du.

Kapitalista handiek ondo gogoan dute oso bizirik dagoela oraindik azken urte hauetan kaleak hartu dituen altxamendu soziala —78ko erregimenaren krisia

eragin duena—. Mugimendu feminista, pentsionistak, aldaketa klimatikoaren aurkako gazteen borroka, lantokietako eta hitzarmenetako gatazkak, Catalunya... Ez bairrik gabe kaleko mobilizazio indartsua izan da hamarkada honetako protagonista, aurreko urteetan izandakoak kontuan hartuz; greba orokorrak, M15a, osasungintza eta hezkuntzako mareak, duintasun martxak... Atzeraldi ekonomikorako, gerra komertzialerako eta austeritate gehiago inposatzeko prestatzen ari diren honetan, botere ekonomiko handiek klase agintariaren neurriak aplikatzeko gai izango den gobernua nahi dute, ahalik eta bake sozial barena bermatzearekin batera: PSOE oso prest dago eginkizun hori hartzeko.

Sánchezen alderdiak hauteskunde kanpainako bandera nagusi bilakatu du Espainia defendatzea. Ez dute inolako zalantzarik utzi. Ikusi besterik ez dago beren hauteskudetako leloa, Orain gobernua, orain Espainia!, eta 155a berriro aplikatzeko egin dituen etengabeko mehatxuak. Beldur dira Kataluniako herriaren eta errepublikaren aldeko borroka zabaldu ote daitekeen. Horregatik, preso politikoen epaia erabili

nahi dute zigor eredugarria emateko langile klasearen eta gazteriaren osotasunari.

EAJ erregimenaren alde eta Kataluniako herriaren eta langile klasearen aurka

EAJk ere izu handiz begiratzen dio Kataluniako herriaren borroka. Kosta ahala kostatzen nahi dute eredu hori Euskal Herriko gazte eta langileen borroka pizgarri bilakatzea. Ondo baino hobeto dakite, hemen ere Kataluniako altxamendua eragin duten elementu berberak dardela: krisi ekonomikoaren ondorio ikaragarriak, eurek aplikatu dituzten murrizketa eta pribatizazioak eta erregimenaren izaera frankistak eta errepresioak eragin duen haserre zabaldua.

Horregatik, Procèsarekin berriro ere distantzia hartu eta bat egin du eskuin espainolistaren kanpainarekin Kataluniako herriaren borroka kriminalizatzeko. Aitor Estebanek zera zioen: “Kataluniako instituzioek CDRei esan behar die indarkeria ez dela onargarria”. Horixe bera da betidanik Euskal Herrian egin dutena: erre-

presioari, “dena ETA da” tesiari eta orain muntaia honi estaldura errepresiboa ematea. Jeltzaleek argi utzi dute non kokatzen diren: 78ko erregimenaren defentsan eta kapitalista espainol nahiz katalanen alboan, autodeterminazio eskubidearen aurka eta errepublikaren aurka.

EAJri berehala ahitzen zaizkio aurre-rakoi itxura egiteko ahalegin demagogikoak, kaleko borroka kareta kentzeko estutzen dituenan. Bizkaiko metaleko langileen borroka itzelaren aurka ere jo dute. Zalantzarik gabe, borroka hori eredu-garria da Euskal Herrian dauden gatazka eta greba guztientzat eta ezin dute hedatu dardina onartu. Patronalaren alde kokatu izanak eta greban dauden 50 mila langileen aurka Ertzaintzaren errepresioa bidaltzeak begi bistan utzi dute berriro ere zein diren EAJren benetako interesak.

Bi adibideak aurrekari bat baino ez dira. EAJ erabat konprometiturik dago eta oso urrun iristeko prest 78ko erregimena eta enpresari handien eta banakarien interesak defendatzeko orduan.

Kaleko borroka! Alternatiba iraultzaile baten alde

Hauteskunde orokorretan zein udal eta foru hauteskundeetan, komunikabide askok EAJren emaitza onak ospatu zituzten. Baina *Euskal Herria Sozialista* aldizkarian azaltzen genuen guztiz oker zeudela hortik ondorioztatzen bazuten EAJk egoera kontrolpean zuela eta borroka soziala ahulduta zegoela. Ortzarrek jeltzaleentzat eskatu zuen “euskal kabreoaren bozka”. Baina Euskal Herriko gazteen eta langileen haserre geroz eta gehiago da EAJren aurkako. Langile borroka geroz eta zabalago da, grebak bata bestearen atzetik gertatzen dira eta garaipen garrantzitsuak eskuratu dira langileen eta mobilizazioen irimotasunari esker. Borroka feministak, pentsionisten mugimenduak eta Altsasuko gazteen aldeko mobilizazio historikoak indar itzela erakutsi dute.

Irimotasun eta indar hori da kaleko borroka bidez ezkerreko alderdiek bultzatu beharko lukeena. Hauteskundeetan eta instituzioetan EAJk abantaila nabarmena izan du: EHBildu eta Podemosen zuzendaritzen aldetik egin ez den aurretik aurreko oposizio tinkoa. Jeltzaleen politika irimotasunez salatu beharrean, beren ahalegin guztiak instituzioetan jarri dituzte, eta EAJrekin aliantza eta itunetara iristeko ilusioak sortu dituzte. Baina botere handien ordezkariekin aliantzak egiteak ez du inoiz irtenbiderik eskainiko langile klasearentzat. Prekaritatearen, ustelkeriaren eta errepresioaren arduradun zuzenak dira. Behar dugun aliantza langile klasearen eta gazteriarena da, mugimendu bakar batean elkartuz murrizketen eta kaleratzeen aurkako eta autodeterminazio eskubidearen aldeko borroka.

Aldaketa sozial sakonak borroka eta antolakuntzaren bidez lortzen dira. Apirilaren 28an eskuina garaitu genuen eta beharrezkoa da azaroaren 10ean kolpe berdina ematea. Baina azken hilabeteetan gertatu denak argi erakusten du klase agintaria ofentsiba gogorrerako prestatzen ari dela eta PSOE nahiz EAJ erabiliko dituela hori aurrera eramateko.

Ondorioa argi dago: alternatiba iraultzaile bat behar dugu, ezker borrokalari bat, sustrai indartsuekin langile mugimenduan eta klaseko sindikatuetan, ikastetxeetan eta mugimendu sozialetan.



WEB orri berria:
www.ezkeriraultzailea.net

Borrokatzeko eta antolatzeko garaia da.
Batu zaitetz Ezker Iraultzailera!

Euskal presoen defentsan lan egiten duten 47 auziperatuen aurkako 11/13 sumarioa irailaren 16an bertan amaitu zen akordio batekin, Audientzia Nazonalean epaiketara hasi eta ordu erdira. Akordioa, alde batetik, fiskaltzak eta AVTren eta Dignidad y Justiciaren akusazio partikularrek eta, bestetik, 47 auziperatuek onartu zuten. Adosturikoak izugarri murrizten zituen kartzela zigor eskaerak, akusatuek kargu guztiak onartzearen truke: erakunde terroristan aktiboki parte hartzea, terrorismoari jarraian gorazarre egitea eta terrorismoa finantzatzea. 47 horietatik, Arantza Zulueta eta Jon Enparantzak igaro beharko dituzte bost hilabete kartzelan, “buruzagi” gisa epaitu izanagatik. Gainontzekoek ez dute espetxetik pasa beharko, 2 urtez azpiko kartzela zigorak dituztelako, nahiz eta inhabilitazio absolutua ezarri zaien kargu eta enplegu publikoetara jotzeko.

Akordio hori Espainiako Estatu aparatuen xantaiaren baitan lortu da: 47 pertsona mehatxatu dituzte fartsa judizial batean 8 eta 20 urte bitarteko kartzela zigorrerara. Noski, epaiketara aurrera eramango zuketzen azken ondorioetara arte, nahiz eta gertaerak ezin frogatu. Altsasuko kasuan eta beste hainbatetan bezala, sumario honen helburua Ezker Abertzalea eta euskal gazteria kriminalizatzen jarraitzea zen, Estatuaren errepresio geroz eta bortitzagoa justifikatzeko.

Erreakzioaren diskurtsoa: “Dena ETA da”

AVTk eta Dignidad y Justicia akordioa txalotu zuten, azpimarratuz ofizialki frogaturik geratu dela “dena ETA da” kontakizuna, auziperatuek beraiek onartu baitzuten.

AVTren arabera, “hori ekarpen bat gehiago da Espainian terrorismoaren historiaren benetako errelatorako, eta horren alde jarraituko du lanean AVTk.” Dignidad y Justicia Victor Valentín Cotobal presidenteordeak, berriz, honakoa zioen: “ez gara geldituko eta aurrera jarraituko dugu, arreta handiarekin, desagertu ez den ‘ETA desagertuan’, terrorismo berria erradikalizazio politikoa izatea espero den fenomeno berriaren aurrean.” PPK, bestalde, EHBilduren aurka egiteko aprobeztatu zuen, Ezker Abertzalea gezurti gisa gelditu dela nabarmenduz, justiziak pertsona errugabeak jazartzen dituela esaten dutenean, Iruñeko zinegotzi hautetsia eta Altsasuko gazteen abokatua den Amaia Izcoren aurka ere egin du, terrorista dela aitortu duela esanaz.

Grande-Marlaska barne ministroak, PSOEko jarduneko gobernua ordezkatzuz, norabide berean baloratu zuen auzia. Estatuaren segurtasun indarren lana txalotu zuen “dena ETA da” tesia frogatzean: “Erakunde terroristaren parte zirela onartu dute eta horrek dena dio, eta onartu badute frogak zeudelako da. Orain gauza bakarra egitea falta zaie: autokritika egitea, gizar-teari eta batez ere terrorismoaren biktimei lagunduko diena”.

EAJ Lakuatik ere ez zen bereizi PSOE, PP eta AVTren argudioetatik. Eusko Jaur-laritzak 47 auziperatuei zuzenean deitzen die “ETAko presoak” edo “ETAko makoen fronteko kideak”. Ez da kasualitatea. Urkulluk kurtso politikoa hasi zuen esanez bere lehen helburu nagusietakoa izango dela EHBilduri eskatzea ETAREN indarkeriaren inguruan “hausnarketa kritiko bat eta kondena esplizitu bat” egin dezala. Bloke atzerakoiak eta PSOEk egiten duten bezala, bere benetako helburua enpresariene alde aplikatzen dituen politikak ezkatzea da. Ke-laino gisa erabili

11/13 sumarioa akordio batekin amaitu da Estatuaren xantaiaren ondoren

Bide bakarra masen mobilizazioa eta politika iraultzailea da

nahi du ustezko terrorismoaren aurkako borrokaren falazia, askatasun demokratikoei eraso egiten dien bitartean.

Begi bistan dago Estatu aparatua espainiarrentzat “dena ETA da” tesiak ez duela helburu jada existitzen ez den terrorismoa borrokatzea, kriminalizazio politikoa baizik. Horregatik esportatu dute tesi hori Euskal Herritik kanpora, Catalunya ezker independentistaren sektore borrokalarienen aurka, edo Estatu mailan ekintzaile sindikalen eta mugimendu sozialen aurka.

Gogoan hartu behar da Catalunya Procèsaren epaiketen testuinguruan, eskuin espainolista hainbat ahotsak eskatu dutela alderdiak eta erakundeak legez kanporatzeko, alderdien legea berreskuratuz. Estatuaren aparatua errepresioaren aurrera pauso juridiko bakoitza, sistematikoki erabiltzen da eta erabiliko da 78ko erregimena desafiatzeko duen langile klasearen eta gazteriaren mugimendu ororen aurka.

Horrela gertatu da alderdien legearekin, gorroto delituarekin, 155 Artikulua-rekin, Mozal Legearekin eta Lege Antiterroristaren 2/2015 zabaltzearekin, hasiera batean terrorismo islamistara bideratu zena eta gero Altsasukoa bezalako kasueta-rako erabili dena.

Sistema honen barruan ez dago irtenbiderik: sozialismoaren aldeko borrokaren programa iraultzailea altxatu behar da

Irailaren 14an 50.000 pertsonen mobilizazio masiboak Bilboko kaleak zeharkatu zituen sumario horren aurka. Azken urteetan, errepresioaren aurka altxa den mugimendua daukagun indarraren erakusle handiena izan da hainbat kasutan: euskal presoaren sakabanaketa, Altsasuko gazteen muntaia, Procèsaren epaiketaren iruzurra eta bortxatzaileei inpunitatea eskaintzen dien justizia patriarkalaren aurka.

Mugimendu horietan eta irailaren 14eko manifestazioan parte hartu genuen inork ez ditugu sinesten akordioak ondorioztatzen dituen akusazioak. Estatuak berak ere ez ditu sinesten. Ulertzen dena da 47 auziperatuek akordioa onartu izana kartzela zigorren mehatxuaren xantaiaren oinarritu dela —inoiz lehenago gertatu izan den bezala—.

Era berean, ordea, kontuan hartu behar da akordio horrek, objektiboki, erreakzioak erabiliko duen aurrekari bat ezartzea ahalbidetzen duela. Ezker abertzaleko abokatuak ETAko kide gisa kondenatzeak, aparatua judizial espainiarra babesten laguntzen du etengabe gauzatu duen arbitrariotasunetik, non Estrasburgoko Auzitegi Gorenak ere jada ohartarazi duen Egunkariko edo Bateraguneko auziengatik.

Epai hori ebatzi den moduak gainontzeko euskal presoak gerturatzeko lagundu dezakeen ustearen inguruan, auziak puntu berean egoten jarraitzen du: Estatu aparatua eta erreakzioa ez daude prest puntu horretan atzera egiteko, euskal presoaren aurkako sakabanaketak eta mendeku neurriek eskaintzen dizkien interes politiko eta propagandistikoak direla eta. Bide bakarra presoaren eskubideak eta beren amnistiaren aldeko borroka masa mobilizazioarekin uztartzean datza, eskuinaren politiken —izan espainolista edo jeltzalea— eta sistemara makurturik dagoen sozialdemokraziaren aurrean.

Historiaren ikasgaiak ere baliagarri dira erakusteko zein estrategiak balio duen borrokaren alde eta zein den porrot eta frustrazio gehiagorako bidea.

Estatu espainiarraren historian preso politikoekin egin den akordiorik mingarriena 77ko Amnistia legea izan zen. Legeak militante antifrankista eta ezkerreko preso asko atera zituen kartzelatik. Halere, praktikan, erregimen frankistaren oinordekoek helburu estrategiko oso argiarekin diseinatu zuten legea: frankismo krimen guztiak inpunitatea izango zuten, gaur arerio dugun Estatu aparatua buruan Francoren erregimeneko funtzionario berberak geratuko ziren, eta PSOEko eta PCEko buruzagiek erregimen horren joko arauak onartuko zituzten. Urte bete beranduago Konstituzioaren alde bozkatzeko kanpaina egin zuten alderdi horiek.

Ez dago zalantzarik etorkizuneko eszenatokiaren Estatuak ez duela amore eman errepresioarekin. 78 erregimenaren ezegonkortasunak eta ahuleziak eta krisi berriaren aurreikuspenak polarizazio

soziala areagotuko dute, baita langile klasearen mobilizazioa eta ondorioz horren aurkako erreakzioa ere. 2016an Altsasuko gazteekin edo 2012an Alfonekin, eta orain CDRekin ikusi ditugun muntaia politikialak eta zigor ereduak ez dira azkenak izango. Azken hilabetei bakarrik begiratuz, dagoeneko ikusi ahal izan dugu Nafarroan LABeko ordezkarien aurkako errepresioa, Ongi Etorrien aurkako kanpaina —Eusko Jaur-laritzaren babesarekin—, Vox, Ciudadanos eta PPren ekitaldiak babesten dituen errepresioa, gaztetxeen desalojoen epaiketak, etab.

Aurrean dugun garaia aukera handia da alternatiba iraultzailea altxatzeko, bai Euskal Herrian, bai Estatu mailan eta bai nazioartean. Ezker erreformistaren planteamenduak porrot izugarria jasaten ari dira kapitalista handiek langile klaseari deklaratu dioten gerraren aurrean. Parlamentuen eta klase arteko kolaborazioaren bidez, kapitalismo zintzo eta gizatiarra lortzea erabateko hondamendirako bidea da, gure indarra ahultzen du eta etsaiki indartzen ditu. Ustezko “eskuin progresistaren” alderdiekin akordioetara iristeak edo instituzioetan gaitz txikiaren politika aplikatzeak dira, hain zuzen ere, erreakzioa elikatzen dutenak. Gure eskubideak defendatzeko kaleko borroka alde batera uztea da ezkerrek egin dezakeen akatsik handiena.

Burgesiak, izan euskalduna, espainiarra edo frantsesa, helburu estrategiko bat du: ezker borrokalariak amore ematea eta horko zuzendaritza izatea borrokan den langile klasea etsipenera eramango duena. Horregatik asimilatu nahi dituzte ezkerreko erakundeak, sistema kapitalistaren eta legediaren mugen barnean, errespetuz joka dezan boterea dutenekin eta enpresa handien eta bankuen jabetzarekin. Eta horretarako erabiltzen dute etengabe xantai, enpresetatik hasi eta instituzio juridiko eta politikoetara arte.

Aurrean dugun eszenatoki honetan, ETAREN desagitea positiboa da Euskal Herriarentzat, langile klasearen kontzientzia hartzeko prozesuan. Baina ondorioak atara behar dira hortik. Ezin zaio porrot egin duen sozialdemokraziaren ereduari begiratu; errepresioaren aurrean amore eman go ez duen marxismo iraultzailean, internazionalismoan eta masen borrokan oinarrituriko programa bat altxa behar da.





Urkullu eta patronala metaleko langileen aurka

**Borroka hau garaipenera arte eman behar da!
Jo ta ke, irabazi arte!**

ANDER AZKARATE
ELAko ordezkaria eta Ezker
Iraultzaileko militantea

Irailaren 30eko goizean, Bizkaiko metaleko greba astearren lehen egunean bertan, Iñigo Urkullu lehendakaria publikoki posionatu zen langileen aurka eta patronalaren alde. EAJk mugimendu taktiko hori egitea erabaki zuen inplikazio guztiekin, eta argi utzi zuen zeinen alde dagoen. Urkulluren arabera, Bizkaiko metaleko patronalak (FVEM), “bere esku zegoen guztia” egin zuen akordiora iristeko eta gatazkari amaiera emateko; sindikatuek, berriz, ez zuten “elkarriketarako borondaterik”, alde zuzenetik erabaki baitzuten kaleak berotuko zituztela udazkenean.

Urkulluren adierazpenek pisu politiko eta taktiko handia dute Euskal Herriko klase arteko borrokan, baita Estatu espainiar mailan ere. Euskal burgesiak badaki kalean konfrontazio handiko garaia datorrela. Sektore askotan lan prekarie-

tate ikaragarria eragin dute urte hauetan, eta gainera egoera ekonomiko ezegonkorra dago. Langile klasearen aurka eraso eta murrizketa berriak prestatzen ari dira. Horregatik, begi bistan dago, euskal burgesiak beldur berezia diela metaleko langileei, kalean, berriro, erakutsi dituzten borroka tradizioengatik eta ekoizpenean duten pisuagatik.

Euskal enpresarien alderdia den EAJk aspalditik begiratzen dio errezeloz Bizkaiko industriako gatazkari. Greba Gipuzkoara eta Arabara zabaltzea eragotzi nahi dute, horrek sektore zapalduenak eta ez hain sindikalizatuak animatu litzake-lako. Alde batetik, metaleko gatazka akordio batekin amaitzeko nahia dago, baina, beste aldetik, euskal enpresarien sektore gogorra ez dago prest amore eman eta sindikatuek eskatzen dutena emateko, horrek aurrerari arrakatsua ezarriko bailuke prekarietatean dauden beste sektoreetan. Benetako hobekuntzak lortzeko borrokatzeak merezi duela onartzea litzateke.

Horregatik, ez da lehendakaria modu irekian agertu irailaren 30era arte patronalaren alde, langileen borroka kritikatu. Ez da egiten duen lehen aldia, baina kasu honetan zorrotz lerrotatu nahi izan du bere alderdia, mezu batekin: ezin dugu utzi lan gatazkak datozen hilabeteetan hazten, asko dugu jokoan (hauteskunde orokorrek eta 2020an Eusko Jaurlaritzakoak). Eskura dituzten bitarteko guztiak erabiliko dituzte: hedabideetako propaganda eta Ertzaintzaren errepresioa. Urriko greba astean are bortitzagoa izan da errepresio hori, pike-te asko modu basatian erasotu baitituzte.

Borrokak elkartu. Greba Orokorra!

Bizkaiko metaleko borrokak EAJk benetako aurpegia, beste behin, ateratzeko baliotza izan du, eta erakutsi du ez diola axola langileek jasaten duten prekarietatea, kontratatuko finkotasun falta, emakumeen aurkako soldata diskriminazioa eta lantokietako istripu eta heriotzak. Maiatzetik

egindako hamar greba egunek arrakasta izugarria izan dute eta Urkulluren hitzek borroka sindikaletako ikasgai garrantzitsua eskaintzen dute: ez da posible negoziazio adiskidetsua FVEM-rekin eta bere aliatu den EAJ-rekin. Horrela adierazi dute langileek kalean. Bereziki adierazgarria izan zen Bilboko kaleetan, greba aste osoaren ondoren, urriaren 4an, egin den manifestazio jendetsuenetako batean langileek erakutsi zuten indarra, animoa eta irmotasuna; aldarri oihukatuena “*Urkullu cabrón, trabaja de peón!*” izan zen.

Borroka amaierara arte pulsuak mantentzeak bakarrik behartu dezake patronala soldata benetan igotzera, kontratatutako subrogazioa ezartzera eta plataforma sindikalaren neurriak onartzera. FVEM-i mezu argia helarazi behar zaio: ez ditugu ogi apurrak negoziatu nahi, plataforma sindikalaren jasotako neurri guztiak lortu nahi ditugu. Urkulluren hitzen atzean, argi nabari da metaleko langileek benetan urduri jarri dituztela euskal enpresariak eta EAJ. Hori da langileek duten arrakastaren seinale hoberena. Bide berean jarraitu behar da borroka eta Euskal Herriko metal guztira zabaltzeko, batasun sindikala mantentzeko presionatuz —hasi baitira zatiketarako eragin nahian— borroka guztiak greba orokorrean elkartzeko bidea eginaz.

Milaka euskal langilek harro begiratzen die Bizkaiko metaleko langileei eta garai-pen irmoa espero dute, beste sektoreetan borroka zabaltzeko. Metaleko langileak, erresidentzietako langileekin batera, itunpeko ikastetxeetako irakasleekin eta borrokan dauden hainbat sektore eta lantokietan elkartuz gero indar askoz handiagoa hartuko luke. Enpresarien eta eskuinaren buruhaustea biderkatu egingo litzateke. Horri pentsionisten borroka eta kapitalismoaren sarraski ekologista salatu kalera irten diren milaka gazteena, feminismo iraultzaile eta antikapitalistaren mugimendu masiboa, erreprezioaren aurkakoa batuz gero, gai ginatete sistema bera kolokan jartzeko. Kapitalismoak ez dio alternatibarik eskaintzen prekarietateari eta miseriari. Krisi berri honi aurre egiteko prestatu behar dugu, gizartea eraldatzeko tresna gisa balioko duen eta borrokalaria eta demokratikoa den klaseko sindikalismoa eraikiz, gure eskubideen alde borrokatzeko.

Alternatiba iraultzailea eraikitzeke, batu zaituz Ezker Iraultzailera!

Sistema kapitalistak gizateria irtenbiderik gabeko kale itxi batera darama. Gerra imperialistak eta eragiten dituzten sarraski eta heriotzak, Europara iritsi nahi duten milioika errefuxiatuaren aurkako jazarpena kontzentrazio esparruetan pilatuz, ingurumenaren suntsiketa, herrialde gehiengo zabalak jasaten duen miseria eta gosea... Planeta osoan zabaltzen ari da basakeria. Eta hori guztia gertatzen da, hain zuzen ere, gizateria-

rentzat bizitza duina bermatzea erabat posible denean, dauden aberastasun, teknologia eta baliabideak erabiliz.

Errealitate honen aurrean, kapitalismoaren logikara makurtzen diren gobernuak, izan eskuinekoak edo izan “sozialdemokratak”, murrizketa sozial politikak basatiak inposatzen dituzte, langabezia kronikoa, prekarietatea eta aurrerarik ez duen desberdintasun soziala ezarri. Sistema kapitalistak ez du sufrimendua ez den bestelako alternatibarik eskaintzen.

Burgesiaren bozeramaileak eskura dituzten baliabide guztiekin saiatu dira marxismo iraultzailearen ideiak behin eta berriz lurperatzen, baina, hain zuzen ere, ideia horiek bakarrik erakutsi dute hondamendi hori azaltze-

ko eta langile klasearentzat eta gazteriarrentzat alternatiba planteatzeko gaitasuna.

Etengabe esaten zaigu toki guztietatik ez dela posible beste sistema bat eta ez dagoela indarririk gauzak aldatzeko. Horren aurrean, munduko zapalduak altxamendu, greba eta iraultzak egiten ari dira mundu zabalean gaur egun: Latinoamerikatik hasita, Hong Kong, arabiar herrialdeak edota Estatu Batuetan. Krisi kapitalistaren esperientziak aurrerakada ikaragarria eragin du kontzientzian eta amesgaizto honekin amaitzeko borrokarako indarra zabaltzeko.

Egoera eraldatzeko, ezinbestekoa da arazoaren sustraira jotzea: sistema kapitalista da jasaten dugun zapalkuntza eta miseria eragiten duena. Gizartearen eraldaketa sozialistaren alde borrokatu behar dugu, kapitalista handiak desjabetzeko, bankuak eta ekonomiaren palanka nugu-

siak nazionalizatzeke langileen kontrolpe demokratikoan; sortzen dugun aberastasun ikaragarri hori gehiengoaren eskura ezartzeko eta ez gure kontura urrezko egiten diren enpresari eta bankarientzako. Langile klaseak eta gazteriek indar izugarria dugu eta gure baimenik gabe ez da ezer mugitzen gizartean. Baina indar horrek antolakuntza eta programa iraultzaile behar ditu.

Bisita ezazu gure web orria eta harpidetu zaituz aldizkarira!

Ezker Iraultzailetik hamarkada bat baino gehiago daramagu marxismoaren ideiak tinko defendatuz gure aldizkarian —*Euskal Herria Sozialista*—, baita ere gure programa praktikara eramaten langile klasearen eta gazterien artean eta alternatiba iraultzailea eraikitzen. Ale honetan aldizkariaren formatu berria aurkeztu dugu eta webgunea ere berritu dugu. Guretzat aurrerapauso garrantzitsua da. Harro gaudu, ideia horiek hamarkada honetan jaso duten babesa adierazten baitute eta hori zabaltzen jarraitzeko asmo tinkoa eta ilusioa dugu.

EZKER
IRAULTZAILEA

Irailaren 27an mobilizazio historikoa egin genuen klima aldaketaren aurka

IKASLE SINDIKATUA

Irailaren 27an krisi klimatikoaren aurka antolatutako nazioarteko ikasle greba erabat arrakastatsua izan zen mundu osoan. 150 hiri baino gehiagotan, milaka eta milaka gazte, langile eta pentsionistak gure ahotsa altxatu genuen sarraski ekologikoaren eta bere arduradunen aurka, goizez ikasleen manifestazioetan eta arratsaldez manifestazio orokorretan.

Gazteak greban, borrokaren lehen lerroan

Euskal Herrian Ikasle Sindikatuak antolatutako greba erabat arrakastatsua izan zen; bigarren hezkuntzako institutuetan %90eko jarraipena lortu zen eta unibertsitateak ia erabat hustu ziren. Goizeko mobilizazioek kaleak hartu zituzten hiriburuetan eta hainbat herritan. Iruñean udaletxe plaza leporaino bete zen, eta Nafarroako beste hainbat tokitan izan ziren mobilizazioak, Leitza eta Tuteran esaterako. Gasteizen hiru mila pertsona batu ziren goizean, Bilbon bi mila inguru ikasle irten ziren Arriagako manifestaziotik eta Donostian azken aldiko ikasle manifestazio jendetsuena batu zen zortzi mila gazte ingururekin; ESKko eta erraustegiaren aurkako mugimenduko partaideak ere parte hartu zuten bertan.

Orokorrean, EHn, Kataluniako herrialdeetan, Galizian eta Estatu mailan bi milioi ikasle inguruk hustu zituzten ikasgelak, eta masiboki parteh hartu zuten 40 manifestazio baino gehiagotan: Bartzelona, Valentzia, Vigo, Madril, Sevilla, Oviedo... Manifestazio guztietan senti zitekeen giro borrokalaria, eta ozen entzun zen oihu antikapitalista. Hain zuzen ere, irudi horietan ikus daiteke langile familietako gazteria izan zela mobilizazioko protagonista handia, zuzenean salatu zuean arazoa sistema bera dela: botere ekonomiko handiak etekin ekonomikoa lortzearen truke natura suntsitzeaz gain, hezkuntza publikoa pribatizatu eta murrizketak egiten dizkigute, langabeziara eta prekarietatera kondentzen gaituzte eta gizartearen gehiengoarentzat miseriazko etorkizuna eskaintzen digu. Kontsigna indartsuenak "kapitalismoa suntsitu!", "Plantea defenda dezagun, ka-

pitalismoa errudun!" eta erraustegiaren eta AHTaren aurkakoak izan ziren.

Goizeko manifestazioak, arratsaldekoen aurrekariak izan ziren. 18:00tatik aurrera, hirietako kale nagusiak berdez margotu ziren, jendeak egindako pankartzaz eta borrokarako grinez. Dozenaka kolektibo ekologistak eta langile eta ikasle sindikatuak antolatutako mobilizazio horiek aurreikuspen guztiak gainditu eta irudi ikusgarriak utzi zituzten.

Hemen ere, saiatu ziren EAJ eta PSEko buruzagiak zurikeria ikaragarri etiketa berdea jarri eta mugimenduaren adiskide plantak egiten. Esaterako, arratsaldez Donostiako manifestazioan agertu zen EAJko Jose Ignacio Asensio ingurumen diputatua manifestarien txistu artean, PSEko Denis Itxasok ere egin izan duen moduan. Berriek izan dira, hain zuzen ere, klima aldaketaren erantzule zuzenak, Zubietako erraustegiaren edota AHTaren bultzatzaile nagusiak eta birziklapenean aurrera egitearen aurkari sutsuak. Ezin onar daiteke, klima aldaketaren aurkako borrokan, ideologiarik ez duela behar esanez denon erantzukizuna dela planteatzea, enpresari handien eta beren zerbitzura dauden politikarien galdi berean gaudela esatea eta, abstraktuan, belaunaldi arteko auzia dela dioen diskurtsoa.

Kapitalismoan ez dago irtenbiderik

Ingurumenaren suntsipenaren aurkako borroka biziraupen kontua bihurtu da. Nazio Batuen Erakundearen (NBE) klima aldaketari buruzko azken txostenaren arabera, "gizateriak 12 urte baino ez ditu hondamena saihesteko".

2019. urtea beroena izanen da 1850az geroztik. Eta hurrengo bost urteotan tenperatura altuagoak aurreikusten dira. Ozeanoak oxigenoa galtzen ari dira, datozen zortzi hamarkadetan itsas-mailak metro erdi bat gora egingo du, egur eta laborantza industriak baso-tropikalak (Amazonian bezalaxe) ustiatzen ari dira suteak eraginez eta Artikoa zein Groenlandia izotzik gabe geratzen ari dira etengabe.

Egoerak okerrera egin du, noiz eta urrerrapen zientifikoek klima aldaketa geratu eta mundua modu jasangarri bermatzen ahal dutenean. Nolatan da posible? Arra-

zoia argia da: sistema kapitalista bankarrien, kapitalista handien eta espekulatuzaileen irabazi ekonomikoak bermatzean oinarritzen da, langabezia masiboaren, prekarietatearen, hezkuntza edo ingurumenaren suntsipenaren kontura.

Munduko gobernu kapitalisten hipokresiak ez du mugarik. Klimaren aldeko goi bilerak antolatu eta ingurumenaren aldeko neurriak erabakitzen dituzten bitartean, meategi, petrolio, gas, siderurgia edo argindar enpresek adostutako neurriak bete ez eta egoera okerragotzen dute.

Kiotoko Protokoloak merkatu bat sortu zuen emisioak erosi eta saltzeko. Herrialde batek gutxiago kutsatuz gero, soberazko emisioak saldu ditzake, eta horrela jarrai dezake planetaren tenperatura igoarazten eta planeta pozoitzen. Logika ero horrek "etorkizun klimatikoak" direlakoak sortarazi ditu, hau da, Burtsan kotizatzen diren balio espekulatuzaileak: 2005az geroztik, 9.700 milioitik 45.200 milioietara pasa dira.

"Kapitalismo ekologikoaren" iruzurra

Hainbat hamarkadatan hauxe izan da diskurtso nagusia: "kapitalismoa erreformatu behar dugu, ekologikoago bihurtzeko", eta bide batez, herritarrei aurpegiratu zitzaizen haien kontzientzia falta "kontsumo arduratsua" ez izateagatik. Arrazoi horiek egia estaltzen dute: gehiengoak ez dugu inolako erantzukizunik hondamendi honetan, baizik eta mundua menderatzen duten elite ekonomikoak eta politikoak du ardura osoa.

Europako hainbat herrialdeetan, "alderdi berdeak" saiatu dira bere burua aurkezten irtenbide gisa. Egia esan, alderdi horiek, gobernura kapitalisten ministerioetako eserlekuak eskuratu dituztenean, murrizketak, errefluxiatuen aurkako erasoak eta NDFk eskaturiko lan kontrarreformak babestu dituzte inongo lotsarik gabe, ingurumena kaltetzen. Horixe bera gertatu da Suedian, Alemanian eta Irlandan.

Estatu espainiarrean, PSOEren gobernuak "Trantsizio ekologikoaren agenda" aipatu du, Eusko Jaurlaritzak berriz "larrialdi ekologikoa". Hala ere, Pedro Sanchezek, Urkulluk edota Nafarroako zein

beste instituzioetako buruek klima aldaketa benetan geldiarazi nahiko balute, aurre egin beharko liekete botere ekonomiko handiei, energia edota hondakin enpresak desjabetuz eta publiko eginez. Politikan ekintzek balio dute, ez hitzek.

Kapitalismoa suntsitu planeta salbatzeko

Konponbidea ez da kapitalismoa hobeto kudeatzea. Hori utopia atzerakoia baino ez da. Planeta hondamen ekologikotik salbatuko bada, beharrezkoa da monopoli handien eta espekulatuzaileen eskuetan diren palanka ekonomikoak desjabetu eta nazionalizatzea.

Ikasle Sindikatuak gure indar guztia rekin antolatu genuen pasa den irailaren 27ko ikasle greba orokorra, martxoaren 15ean egin genuen moduan. Berriz ere gure errebindikazio guztiak lortzeko indarra daukagula erakutsi genuen. Baina gure mugimendua ahalik eta boteretsuena eta eraginkorrena izateko, borrokarako mugimendu ekologista antikapitalista altxatu behar dugu. Gizartearen eraldaketa sozialistaren alde borrokatzea hil ala biziko kontua da.

- Zubietako erraustegia gelditu! Birziklatze enpresa publikoak, langileen kontrol demokratikopean. Negoziorik ez ekologismoarekin!

- Energia eta erregaiak sortzen dituzten multinazional guztiak nazionalizatzea eta inbertsio plan publiko bat egitea energia industria erabat ekologikoa eta jasangarria izan dadin. Energia pobrezia ez!

- AHTrik ez! Kalitatezko eta doako garraio publiko eta ekologikoaren alde. Inbertsio masiboak hiriak %100 jasangarriak izan daitezten.

- Automobil, aeronautika eta ontzintza industriaren nazionalizazioa eta horien eraldaketa ekoizpena bideragarria eta ez-kutsagarria izan dadin.

- Lurraren, abeltzaintzaren eta elikagai prozesamenduen industriaren nazionalizazioa. Ozeanoen ustiatze kapitalistari ez! Elikadura jasangarri, ekologiko eta osasuntsuaren alde, gizarte osoarentzat!

- Langileen eta gazteen osotasunaren kontrol demokratikopean planifikaturiko ekoizpen jasangarria! Munduaren eraldaketa sozialista eta ekologikoaren alde!



Auzitegi Gorenak Altsasuko gazteen aurkako muntaia berretsi du

Aski da! Errepresio frankistarik ez! Altsasukoak askatu!



Urriaren 9an, Auzitegi Gorenak ebazti zuen Altsasuko gazteen aurkako muntaia polizial eta judizialak aurrera jarraituko zuela. Kartzela zigorrak zertxobait arintzeak ezin du ezkutatu prozesu judizial honen benetako helburua: Euskal Herriko gazteak kriminalizatzea eta eskuin espainolistaren diskurtsoa nahiz Estatu aparatua frankistaren estrategia errepresiboa hauspotzea. Gurasoek zioten moduan: "Makilatzen saiatu badira, ez dute lortu: hau basakeria eta bidegabekeria da". "Badakigu sententzia hau inplikazio politiko, mediatiko eta judizialak dituen muntaia honen helburu ilunak mantentzen eta horien baltioa indartzen tematzen dela".

Berriz ere, oso konkretuki ikusi ahal izan dugu Estatu aparatua espainiarraren izaera frankista. Fiskaltzaren argumendu juridiko nagusia "Guardia Zibilak Espainiaren, Erregearen eta Konstituzioaren duena leialtasuna" izan da.

Epaia hau, hain zuzen ere, "helburu ilun" horien frogapen argia da. Lehenik sententzia ezartzen du eta gero gertaerak eta teknizismo judizialak horretara egokitu. Orain, Gorenak ez du arrazoirik ikusten "diskriminazioa" eta "gehiengoaren abusua" larrigarriak aplikatzeko. Gainera, Aratz eta Iñakiri aurrez egotzitako lesio delitu batzuk kendu dizkiete frogatagatik. Epaileen itzulginguru guztiek ebidentzian utzi arren, aparatua judiziala ez dago atzera egiteko prest eta kartzela zi-

gorrak kriminaletatik izaten jarraitzen dute: 9 urte eta erdi Oihanentzat, 8 urte eta erdi Adur eta Jokinentzat, 7 urte eta erdi Jon Ander eta Julenentzat, 4 urte Aratzentzat, 3 eta erdi Iñakirentzat eta urte eta erdi Ainararentzat.

Eskuin espainolistaren neurria eginiko muntaia

Estatu aparatua, eskuineko alderdiek eta beren hedabide atzerakoiek bloke berean lan egin dute hasieratik muntaia hau osatzeko.

2016ko urriaren 15ean, taberna inguruko liskar batek tartean hartu zituen bi Guardia Zibil eta beren bikoteak. Lesio larriena orkatileko haustura bat izan zen eta denak ikusi ditugu gau hartan grabaturiko bideoak. Atzerakoiek, ordea, ETA-ren itzuleraren inguruko kanpaina mediatiko amorratua jarri zuten martxan. Rajoy berak txio batean hori ez zela zigorrak gabe geratuko idatzi zuen. Berehala herriko zortzi gazte terrorismoz akusatu eta kasua Auzitegi Nazionalera eraman zuten. Fiskaltzak 62 urteko kartzela zigorra eskatzen zuen Oihanentzat, 50 urte sei gazterentzat eta 12 urte Ainararentzat. Guardia Zibilak

hilabete baino gutxiagora Adur, Oihan eta Jokin atxiloturik eraman zituen Madrileko kartzeletara -2016ko azaroaren 14an eta 2018ko ekainaren 5ean Jon Ander, Iñaki, Aratz eta Julen. Uda hartan egin zen epaiketak, deklarazioek, ez onartzea defentsaren frogak eta testiguak... Ageri geratu zen fartsa bat zela.

Azkenean, Auzitegi Nazionalak epaiak terrorismo akusazioa alboratu zuen eta orain Gorenak larrigarri batzuk bertan behera utzi ditu. Baina, martxan jarri zuten makinariak ez zituen gertaerak frogatu nahi, ezta justizia egin ere... Helburu politiko batekin abiatu zuten, kriminalizazio politikoa, eta ez daude prest horretan atzera egiteko, ez baditu kaleko mobilizazioaren indarrak behartzen.

Gazteak askatu arte mobilizazioak eta elkartasunak aurrera jarraituko du

Gorenaren epaia ezagutu ostean, urriaren 10ean milaka atera ziren kalera Euskal Herriko hiri eta herrietako kontzentrazioetan.

Altsasuko gurasoak eta Altsasukoak aske plataformek urriaren 26an Iruñera martxan batean, epaitegi aurrean kontzentratzeko deia egin dute. Mobilizazioek aurrera jarraituko dute datozen hilabeteetan.

Borroka honek Euskal Herriko mugak gainditzea lortu du. Ezker Iraultzailetik elkartasun kanpaina internazional bat egin genuen, eta gure indarrekin aurrera egiten jarraituko dugu muntaia honen aurka. Epaia honek, U1eko Kataluniako epaiak bezala, erakusten du errepresio frankistaren aurkako borroka gizarte eraldatzeko borrokarekin elkartu behar dugula, 78ko erregimenarekin behin betiko amaituz.

